



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Lurraren altxamenduak

Estatu poliziala kanpora! Abesten dute negar-gasen leherketen artetik. Gaztetxo konprometituak, amaxi militanteak, aurpegi estaliak, edo ez, pailazoak, musikariak, sindikalistak eta politikariak, kaskodun medikuak, laborariak traktore gainean... Landa-eremuan zein hirian, Frantziako Polizia armatuaren aurrean harro, helikopteroen jaurtigailuen azpian ausart, txaloka eskuak gora altxatuta oihu ozenak aineratzen dituzte: *izan gaitezen denak antifaxistak!*

"*Les soulèvements de la terre*" Frantziako tokiko borrokak sartzeko ahalgina da, lurraren banaketa zabalagoa bilatzeko eta erresistentzia bultzatzeko. Natur-guneak defendatu nahi dituzte espekulaziotik, porlanetik eta industrializaziotik. Mugimenduak, era berean, trantsizio ekologiko eta sozialaren beharra aldarrikatzen du, nekazaritza iraunkorraren eta baliabide naturalen zaintzaren alde. Egiatzko indar harremana ezarri nahi dute, Ama Lurra landa-industria eta merkatarri harrapakariengalmenetik erauzteko. "Hondamendi ekologikoa eta prekaritatea zerumuga bakartzat hartuta hazitako gazte matxinatuak gara", diote.

Besteak beste, borrokatu dira lan legearen, Poliziaren indarkeriaren, arrazakeriaren, sexismoaren eta klimaren apokalipsiaren kontra. Notre-Dame-des-

Landesen aireportuaren aurka kanpatu, uharken kontrako Uraren Hiria eraiki, A69 autobidea eteteko harresia altxatu, porlana ustiatzeko usina erraldoiak barrutik boikotatu, merkataritza gune erraldoiak eraikitzeko lurra okupatu... Herrietarrak dira, beren lurraldeari atxikiak. Nekazariak ere badira, eta salatzen dute Frantziak ez diela garrantzirik aitortzen. Beraiek, ordea, jendartea elikatzeko, Lurrarekin eta bizidunekin eguneroko zaintza harremana ezartzen dihardute.

Euren bitartekoak, ugariak: baliabide juridikoetatik ekinga zuzenetara. Gero eta leku eta jende gehiago batzen, hormigoien jaunaren aurrean, makroproiektuen aurka, zutik. Nonahi, beraien deialdiak eta erresistentziak biderkatu egiten dira. Eta dagoeneko hainbat garaipen ere eskuratu dituzte!

Gu gara, diote: zu, ni, zuek. Deia luzatzen diete borrokan atomizazioaren, ekiteko zailtasunen eta jabeen irentsi-nahia aseeginaren aurrean isolatuta edota ezinean sentitzen direnei. Bistan da, bai, isolamendu hori apurtzen asmatu dutela; herri boterearen bilgune indartsu bilakatu dira, mundura zabalduz borroka eredu garrien irudiak, umorez, indarrez, Ama Lurraren erraietatik, konplexurik gabeko erradikaltasunez, txikien arrazoi handia lagun... Asko ikasteko bidelagunak, bai horixe. Altxa bedi lurra! ●

Aldairak



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Etxez aldatzen naizenean, edo, areago, norbait etxetik joaten denean, oroiminak hartzen dizkit burua eta bihotza. Orduan hasten naiz zer gordeko dudana eta zer ez erabakitzen saiatzen. Izan ere, objektu guztiek lotzen gaituzte zerbaitetara, edo norbait ekartzen digute gogora; eta, beraz, objektu bat baztertzeak gertakari edo harreman bat baztertzea dakar, baina, batez ere, hura berriz bizitzeko aukera desagerraraztea. Diotenez, aldairak une egokiak dira itxaropena, usteak eta nahiak desagerrarazteko, aurrera egin eta non gorde

ez dakigun guztia botatzeko, sunsitzeko edo oparitzeko. Alabaina, eta kontrako espero genezakeen arren, aldairek urduritasuna eta sosegurik eza eragiten digute eta ez, ordea, lasaitasuna eta ba-kea. Izan objektu edo pertsona, berdin gertatzen zaigu: ez du ezertarako balio oraindik botatzeko sasoian ez dagoena botatzeak. Maite izan ditugunak ere desagertu egingen dira gure baitatik egunen batean gudan ez ditugulako nahi, baina bizitzaren misteriorik handienetako da jakitea zergatik ezin dugun ahaztu, hain zuzen ere, ahaztu nahi dugun hori. ●